

## **Euskaldunak TOUR-a irabazi guran: Udalergi Euskaldunen Mankomunitatea**

*Iñaki Arregi*

Euskararen normalizazioari buruzko edozein atal izanda ere, polemiko bihurtzen zen/den honetan, BATekoek Udalergi Euskaldunen iharduera nondik nora dabilen argitzeko artikulu bat idazteko eskatu zidatenean, "hori dok marroia hori, mekawen zotz", besterik ez zitzaidan etorri burura erantzun gisa. Izan ere, Funtzionarien euskalduntzea, Euskal Eskolaren arazoak eta EKB eta HPINeko ordezkariak izandako ririrafea euskaltzaleen koadrilateroan zeuden/dauden hartan, Udalergi Euskaldunei (fundamentalistei) buruzko edozer idazteak gaiak eskatzen zuen/duen zuhurtziagaz behintzat, zirkoan "salto mortal bikoitza" ematea baino gaitzago egingo zitzaidala pentsatu nuen, bai alde batekoak zein besteak larregi ez asaldatzea komeni baitzen/da. Eta hori, zirkoan saio gutxi egin duen batentzat gaitza zen jakina.

Hau horrela, bi aukera neuzkan. Komenientzien arabera zeredozer light (tongoa?) idaztea batetik, edota eskatutakoa idaztea bestetik (belarrondoko ederrak hartzeko aukera guztiak), hots, Udalergi Euskaldunen asmo, helburu, arazo eta abarrei buruz idaztea hain zuzen.

Hori bai, bata ala bestea aukeratuta ere, umorea ahaztu barik, ze berau baita euskalgintzan sasoiari aritzeko kirolari onena eta hauen artean txiririndularitzak (euskal) zale gehien duena. Umorea galduz gero akabo guztia..., Santa Teresa berak ere esan ei zuen umore barik ezin zela santutasunean bizi eta Euskal Herri honetan euskaraz (euskalgintzatik zer esanik ez) bizitzeak santutasunean bizitzeak baino meritu handiagoa duelakoan nago. Ala ez?

### **Txiririndularitza**

Orain pare bat urte, "Euskadik" euskaldunetz osatutako talde txiririndulari propio bat behar zuen ala ez eztabaidatzen hasi zenean, euskaltzale ugari premia bai baina

ezer gehiago ez zuen ikusten. Txirrindulari onak bai, baino gai izango al ziren frantsesekin eta espainolekin lehia ibiltzeko? Eta Indurain nafarra izanez sartzen al zen ekipoa? Eta horrelako mila galdera airean zebilen.

Zer muga administratibo eta zer otxokuarto, hemen euskarararen geroa planifikatzerako orduan Euskal Komunitatea da kontutan hartu beharreko multzo garrantzitsuena..., horrela esaten dute soziolinguistek behintzat (hau da hau artikulua hasteko ganora. Erlojuaren kontrako etapa ematen du arraioa).

Galdetu bestela Nafar txirrindulariei. Galdetu Leitza eta Goizuetako udalerriei zergaitik eskatu duten lasterketa honetan parte hartzea, alegia, Mankomunitatean sartzea. Garbi dute mugimendu hau ezin dela laga udal batzuen borontate hutsean eta egin beharrekoa lehen bait lehen eta denok batera egin beharko dutela, ze antzeko egoera soziolinguistikoan dauden udalerriek ez badute tropel bat osatzen inork ez du helmugako pankarta ikusiko.

Eta Iparraldekoekin zer? Izan ere, hor ere txirrindulari onak badaude eta lege aldetik une hau gurekin aritzeko aproposa ez izan arren, eurekin kontaktoren bat izan beharko genuke. Hau gauzatzeko, Iparraldeko udal euskaldunekin harremanetan jarri ondoren euren partaidetza Zuzendari Batzordean eskeini beharko genieke.

Eta jakina, udalerrri erdaldunek (gregarioak) besteen akuilu barik kontrola itxita (sustitutzioa) edukiko dute konturatu ordurako, udalerrri euskaldun txiki hauek baitira lasterketa honen izarrak, Euskal Herriko erdigunea edo pista nagusia, eta beraz zaindu beharrekoak, azken finean eurek egin beharko baitute lanik gogorrena. Holarako gune euskaldunek efektu biderkatzailea izango dute beste Udalerrri eta Administrazio ez euskaldunetan elebitasun normalizatu batera bultzatuz, normalizaziorako erreferentzia baitira.

#### **Euskal Herriak badu bere "taldea"**

Nolanahi ere, euskarak berezko dituen funtzio guztiak garatzeko gune propio bat behar du. Hemen helburua ez da lasterketa txiki batean parte hartzea, baizik eta lasterketa ugari egitea Tour-a irabazi ahal izateko. Horretarako, bai mendian zein aldapaz behera ondo ibili behar da (nahikoa ez izan arren), erlojuaren kontrako probetan denbora onak egin behar dira (nahikoa ez izan arren), abanikoetan argi ibili behar da (nahikoa ez izan arren), eguraldi ona eta txarrarekin ondo moldatu behar da (nahikoa ez izan arren)... Txirrindulari konpletoa (euskaldun osoa) izan behar da eta beraz, ez da nahikoa etxean edota lagunen artean korritzen diren karreretan parte hartzea. Hala ere, esprinterrek ez dute sekula irabazi horrelako norgehiagoka handi bat (etapa batzuek irabazi arren)

Karrera hori irabazteko asmoz, Udalerrri Euskaldun batzuek taldea osatzen dihardute. Honen izena UEMA: Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea. Izan ere, udalerek dute hizkuntza normalizazioa diseinatzeko betebeharra, gune hauetan ematen baita herri-tarren arteko harremanik garrantzitsuena. Euskara biziko bada, frantzierak eta gaztelarrek duten moduan, bere lurgune minimo propio HEGEMONIKOA eduki beharko du, eta hori zelabait liteke orain zatikatuta dagoena batzen badugu.

Une honetan 16<sup>1</sup> txirrundularik osatzen dute Euskal Herriak hain premiazkoa zuen UEMA taldea eta "bizkait(x)arren" eta "giputzen" arteko txiste zaleen kalterako 8 Herrialde bakoitzean: Aizarnazabal, Altzo, Aulesti, Baliarrain, Dima, Errezil, Etxebarria, Gatika, Gizaburuaga, Leaburu, Lizartza, Munitibar, Nabarniz, Orendain, Oresa eta Zeanuri. Hauekin batera Leitza eta Goizuetako herri nafarrak betebeharrak burokratikoetan dabilta UEMAn sartzeko<sup>2</sup>. Badaude hala ere, beste ehun udalerrri euskaldun gehiago (Iparraldekoak kontatu barik) planifikazio serioa eginez gero epe labur batera euskaraz funtzionatzeko, taldean sartzeko alegia, eta muturrean aritzeko gai direnak, baldin eta (hara ba, beti baldin eta) horretarako borontate politikorik balego. Izan ere, bai Mari Karmen Garmendiak eta Jose Maria Otxoak zuzentzen duten departamenduen (esponsorrak) zein herri talde euskaltzale (jarraitzaileak) eta alderdi abertzale guztien (etxe komertzialak) babes politikoa, sozial eta ekonomikoa lortu beharko lituzke talde berri honek. Esan beharra dago orain arte egindako kontaktoak baikorrak izan direla eta hauek mantentzeaz gain harreman hauek planifikatzeko ordua heldu dela pentsatzen duela Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak. Zela-bait hasteko ez litzateke bat ere txarto egongo Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Zuzendaritzak ordezkariaren bat bidaliko balute gure bileretara.

#### **Denboraldi aurreko entrenamenduak**

Txirrundulari gazteak direla kontutan izanda, esperientzia eta errodaiea hartzea izango litzateke lehenengo bost urteetako zeregin garrantzitsuena. Horretarako, lehenik eta behin udal guztietan (udalerrri txiki hauetan lauzpabost langile besterik ez daude) profilak martxan jarri behar dira, organismoa ohituz joan dadin. Laugarren hizkuntz eskakizuna idazkarientzat, bere eskutik pasatzen baita barne produkzio guztia. Idazkariak izan behar du hizkuntz normalizazioaren burua, txirrundulari (udal) bakoitzak duen sendagilea baita. Idazkari laguntzaileak 3. profila izan beharko luke, berari dagokion lana ganoraz bete ahal izateko eta udaletxera doazen herritarrek laguntzeko, masajista lanak tokatzen baitzaizkio. Beste langile guztiek udaltzaina, etxez etxeko laguntzailea, bizikletak puntuan jartzen dituen teknikoak, txoferrak, sukaldariak... 2. profila bete beharko lukete, izan ere, sormen lanari eman behar zaio lehentasuna, itzulpenak baztertuz. Horrelako antolaketa batek euskara hutsean corpus administratiboa lantzeko baliagarria izan beharko luke.

Herritarrek euskaraz bizi daitezen, udal langilegoaren prestakuntza eta barne funtzionamendua euskaraz gauzatzea aurrerapauso handia izan arren, garbi dago ez dela nahikoa ugariak baitira oraindik udal euskaldun hauetan aritzen diren sendagile eta praktikante erdaldunak edota baserriz baserri dabilta postari eta basozain erdaldunak. Baina hau negoziazio simple batez konpon daitekeen gauza da, ze euskaldunak egon badaude. Eta gainera, euskara bizitzeko beharrezkoa denean, ikasi ere errazago ikasten baita.

Beste aldetik, denda eta tabernek elkarlanerako hitzarmenen bidez errotulazioa eta harremanak euskaraz gauzatzea nahikoa litzateke lehen fase batean, hurren-

1 Bizkaitarren zorixarrerako Gaintza udalerrri gipuzkoarra UEMAn sartu da.

2 Mankomunitate barruan daude dagoeneko.

goan eskualdeka lan munduari astindu bat ematea pentsatzen joateko.

Hala ere, taldea martxan jartzeko garantia guztiekin, tekniko profesionalen behar izugarria dago. Arkitekto, abokatu, idazkari... euskaldunak, alegia, gai direnak euskaraz funtzionatzeko gutxi dira eta ondorioz erdaraz betetzen dira hainbat lan. Une honetan, profesional erdaldunekin aritu beharra dugu eta beraz itzulpenak ugariak izaten dira. Arazo larri honi aurre egiteko, unibertsitatek ateratako profesionalekin euskaraz edozein arlotan arituko diren enpresak bultzatu beharko genituzke. Urterotertero alfabetatze ikastaroak eskeini behar zaizkie herritarrei.... eta jakina, honek ekartzen dituen gastuak HABEk hartu beharko lituzke bere gain, eta hau ikasleen kopurua eskatutako minimoetara heldu ez arren, ezin baitira ezarri udalerrri txiki hauetan handietan diru laguntzak jasotzeko erabiltzen diren baldintzak.

Nolanahi ere, ez dut aipatu barik laga gura UEMAko kapitaina den Antton Iztuetak Tolosan azken ihardunaldietan egindako gogoeta pare bat. Izan ere, Udalerrri txiki hauetan gaztelaren presentzia gero eta handiagoa da eta ondorioz fenomeno berri batzuk ematen ari dira. Hona hemen:

"Gaur mundu guztiak kotxea dauka eta kalean aurkitzen ez duen lasaitasun horren bila herri txikira dator baina gainera bere erdararekin dator eta ez da konturatzen herri euskaldun batean dagoenik ere. Ez zaio burutik pasa ere egiten "arratsaldeon" esaterik, "buenas tardes" baizik erdara batuan eta lasaiki. Ez dut esaten etorri behar ez dutenik, ezta gutxiagorik ere, baina bai konturatu behar dutela nora etorri diren eta hori, herri txikietan bizi garenon egitekoa da. Beste gauzak errespetatzen dituzten bezala (natura etab.) hizkuntzarekin ere honela jokatu beharko genuke, hau da, hizkuntz ekologia edo... praktikatu behar genuke, horrela deitzerik baldin badago behintzat. Guk ez dugu industria, zerbitzu eta ekipamendu handirik baina bai, ordea, nortasun bat, lasaitasuna, gune berdeak eta altxor preziatu bat: euskara. Guzti hori baloratzen ikasi beharrean gaude. Herri txikiek euskararen gordeleku izan behar badute, derrigorrezkoa da herri txikiek bizirik irautea. Herrian dinamika bat sortu behar da haur, gazte, udal eta gurasoekin. Bailara mailan ere, Udalerrien arteko antolaketa (...) eta horretarako badugu adibide bat Tolosaldeko herri txikietan: "Muskil" Kultur-kirol elkartearen antolatza goaz bailarako 16 herriren artean. (...) Arestian esandako guztia sozializatu nahian eman ditu pausuak Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak. Epe laburrerako helburu bat, honako hau litzateke: gune trinkoak lortzea, izan ere, orain UEMA osatzen dugun udalerrriok, nahiko sakabanaturik baikaude elkarrengandik".

#### **Zergatik talde euskalduna?**

Eta zergatik ez, taldea osatzeko txirrindulariak baditugu? Gure txirrindulariak izanda, Espainiako eta Frantziako ekipoetan aritzea hobe al da? Udalerrri hauetan euskara izan da, eta da etxeetan jasotzen eta transmititzen den berba bakarra eta hori horrela izan da mendeak joan, mendeak etorri Admistrazioa, Eskola, Komunikabideak, jauntxoak, legeak, trikorniodunak... espainolak izan arren. Hala ere, hor dihardute erre ke erre euskara normalizatu guran, ze aipatutako arlo formaleko zereginetarako lekurik egin ez zaionez sukaldean, intimidadean ere, gaztelania sartzen ari

dela konturatu dira eta. Sekula halako lotsabakorik! Laga eta laga, eta azkenean barruraino. Baina hori horrela izan da euskaldunok izan dugun autogobernu ezagatik.

Zer kristo dela euskara normalizatzea? Ba zera, gaztelerak betetzen dituen funtzio guztiak euskararentzat bereganatzea, hots, normaltasun osoz bizi ahal izateko gaztelerara beharrezkoa ez izatea, demonio. Besterik ez. Hori ez dela legala? Legeen gaintetik bi eskubide natural ditu euskarak, edota hobeto esanda euskal kulturak (eta ez nahastu kultura eta agri"kultura" mesedez), transmititzeko eskubidea batetik eta hizkuntza osoa izateko bestetik, "talde propioa" izateko eskubidea eta osatzeko obligazioa beraz. Eta euskaldunok urteek emandako eskarmentua dela mediante, jakin badakigu euskararen normalizazioa (euskaldunen normalizazioa) guk ez badugu bultzatzen inork ez duela egingo. Beraz jai dauka legeak... edota aldatzeko beharra, batek daki.

#### **Ekipoa osatzeko arazo legalak**

Euskaldunok talde propioa edukitzea pribilegio eta legearen kontrako zerbait dela esaten dute espainolek eta frantsesek, berauek talde indartsuak ez bakarrik euren eremuetan, baizik eta Amerikan, Kanadan eta Afrikan dituzten arren. Euskaraz gero eta gune handiagoetan izatea ez da berba gutxitu honi dagokion "pribilegioa", berau normalizatzeko modu bakarra baizik.

Beste marko juridiko berri bat behar dugula? Erregular! Eta bitartean? Bada Kintanak esaten duena "traidore izatea dela hain zuzen, legeak eskaintzen dituen aukera guztiez ez baliatzea". Honekin batera, sekulako errua iruditzen zait elebakartasuna planteatzea udalerrri euskaldunetan, praktikan ezinezkoa gertatzen delako une historiko honetan (tekniko euskaldunen eza, herritarren alfabetatze maila eskasa...). Beraz, hobe "nagusi" edota "hegemoniko" terminoak erabiltzea elebakarra baino.

Legea, beraz, marko hau edota bestelakoa izanda ere, euskaldunen borontate barik beti... lege. Marko berri hori euskararen (euskaldunen) normalizazioaren aldaketaren abiapuntua baino, euskaltzale guztion ihardueraren kontsekuentzia izango dela konbentziturata nago, beraz, gaur udalerrri euskaldunetan elebakartasuna soluzio legez planteatzea sekulako errua da eta praktikan ezinezkoa gainera.

Gure egoera, euskararen egoera hain zuzen, historiaren fruitua da, eta ez egun martxan dugun hizkuntz politikarena, azken hau desegokia izan arren (A eredu irakaskuntzan, Egunkaria, AEK...) interes politikoei eta ez soziolinguistikoei erantzuten baitie. Izan ere, politikoek agintzen (mugatzen) dute eta ez soziolinguistik, beraz, marko eta une historiko honetan egin ahalak egin arren, euskararen garapena normala izango ez bada ere, legearen edalontzia gaintitzea tokatzen zaigu eta jakina, orain dugun legea beste marko batean egoten dena ere ez da beteko presio sozialik gabe.

Aldaketa hau euskararen erabileratik etorriko da, edota ez da etorriko... ez dago esan beharrik Udalerrri Euskaldunek jokatzen duten papera ahozko euskararen erabileran. Baina garbi dago ahozko erabilera ez dela nahikoa. Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak eta UEMAK elkarlanerako egin beharko luketen ahaleginak euskararen erabilera beste arlo guztietan segurtatzeko izan beharko luke.

Alperrik izango dira AEK, HABE, IKA, Ikastolak... euskara erabiltzeko baldintza aproposak ez baditugu jartzen, eta hauek udalerrri euskaldunetan ematen dira, ez bakarrik euskaldunen nagusitasunagatik, euskararen kalitateagatik ere bai. Azken finean, erabiltzearen baliagarritasuna ikastearena baino handiagoa baita eta hau merkatu bat denez eskaintza ona ez badago ez dago saltzerik.

Euskara errealitate sozial bat da eta beraz, euskaldunen komunitatea da kontutan eduki behar duguna eta ez bakarrik norbanakoaren hizkuntz errespetoa. Gainera, euskara normalizatu arte ezin da berbarik egin norbanakoaren hizkuntz eskubideaz, aukeren berdintasunez alegia. Elebitasun indibidualak bultzatzen duen Hizkuntz Politikak ez du inolako aurrepausorik ahalbideratzen. Norbanakoaren hizkuntz eskubidea bakarrik babesten baita baldin eta komunitate linguistiko guztien berdintasuna defendatzen bada.

Euskal kulturak euskaldunak batu eta herriaren esperientziak transmititzen ditu, identifikazio sentimendu kolektiboa sortzen du, baina ez beti nazionala. Euskararen funtzioak osoak eta ez azalekoak izaten direnean identitate linguistikoak eta nazionalak "BAT" egingo dute. Euskararen etorkizuna beraz, ez dago trinkotze funtzio horretan bakarrik, komunikatzeko gaitasun horretan baizik eta bi baldintza hauek ondoen betetzen dituzten txirindulariak UEMAko Udalerrriak dira. Beraz, Lakuako eta Iruñeako Hizkuntz Politikek datozen urteetarako diseinatuta duten erabilera bultzatzeko egitasmoak badu non hasi.

Euskal kultura aipatu dugunez esan beharra dago euskaldunok ez dugula oraindik kapitalik, euskaldunen hiribururik alegia. Une honetan UEMA taldearen egoitza Altzoko udalean dago, baina ekipoa errodajea egin ostean eta gune euskaldun bat martxan jarri ondoren, beste udalerrri handiago bat beharko luke, euskal herritarrentzat erreferentzia kulturala izango dena, Euskal Herrian euskal kultura bultzatzeko "sakabanatuta" erabiltzen den dirua eremu euskaldunetan gastatzeko besteak beste...

Euskal Unibertsitatea (euskaraz funtzionatzen duten sailak), Foru Aldundiko sail euskaldunak eta oro har euskaraz iharduten duen guztia (EKB, Ikastolen federakundea...) hiriburu horretara eraman behar genituzke, bertako eta inguruko herritarrak motibatuz eta lanpostu ugari sortuz. Hiriburu honek euskal herritarrengan izango lukeen eragina ez Bilbok, Donostiak, Gasteizek, Iruñeak... ezta denon artean orain duten eragina izango luke. Ala ez? Horrela uste juat/jonat behintzat.

Edozelan ere, bidali ezazue EKBra zuentzako euskaldunen hiriburua izateko baldintza hoberen betetzen dituen udalerrriaren izena, izan ere, irabazleen artean sekulako mapak zozketatu ditugu eta.

***Iñaki Arregi***

*UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) teknikaria  
EKBko kidea*